

Nafar**k**aria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko apirilaren 28a / VI. urtea / 176. zenbakia

Gaur amaituko da Nafarroako Museoan aste osoan zehar bertan egin den Hilarriei buruzko VI. Nazioarteko Biltzarra. Europa osoko ikertzaile eta zaleak bildu dira Iruñean egun hauetan hilarriei buruzko azken txosten eta informazioen berri izan eta eztabaidatzeko. 1979. urtean burutu zen lehen biltzarra; orduz geroztik aurrerapauso handiak eman badira ere, bada oraindik gainditu beharreko hainbat arazo eta zailtasun. Iruñean bildu diren biltzarkideen ustez, irizpide batasuna funtsezkoa da hilarrien historia eta garapena zehaztu


Hilarrien Biltzarra



Jatorri ezezaguneko hilarri honetan inskripzio bat idatzi zuen egileak, 'Ioanes sola me fecit, istud'. Hau da, 'Joanesek bakarrik egin ninduen'.
XABI VENTURA

Adiskide eroarekin

MIKEL TABERNA



Apirila

Apirilean du laborariak garragarra, lursagarra eta bazka-belarra ereiten. Corellan baraxuria eta tipula ere bai. Aurten goan landare pozointsu eta orojaleen baratze beldurrezkoa ideki digute, zer uzta lortu nahi duten erakusteko (lurtako nahi gaituzte). Horrela izatean da lau urtetik behin. Pasazaizte, pasazaizte! Aukeran, jenero guziak. Eta horien artean berri bat, Convergencia Foralis. Hor dabilta nafartasuna eta nafarkeria bereizten omen dituztela, harro harro, eta NafarKARI hau badenik ere ote dakite? Martxa ederra!

Apirilean du soroa ureztatzen, mahastiak estekatu eta aberaskak garbitzen. Horixe ba, gure kaskezurak goldearekin zabaldu eta barreneko pilota xehetu ondotik, hitz euria, ele lingirdatsua barra-barra, ea gutako bakoitzari zainik lotzen zaion. Baina garbitze horretan, Lizarrako Anjelitik erranen lukeen bezala 'ni con todo el/agua del Jordán'. Kostako zaie zikinkeria horren kontra!

Apirilean, halaber, estalarazten du behorra. Klase guzietako behorrek eskainka han eta hemen. Nahi aina kolore. Zahar eta gazte. Guziguziak diren baino ipurtederrago ageri. Denak iel. Bota bota, bota hazi hunat!

Eta zer gehiago apirilean? Usapal itsuak laztandu ahal dira eta hurrunutzen soegin erreka haziak daraman idi itoa. Errekako urak haunditu Madrilgo trumoiarekin. Aznar. Ausnar. Ez gogoeta, ez pentsamendu, ausnarrean hemen. Memoria kaskarreko behi-makal sobera. Eta tximista Endarlatsan. Endarlazan (Diario). Endarlatsan (El Otro). Ur uherrak. Baina zer diote Orbaitzetako Mikelena ikusi zuten lamia berritsuek?

Eta zer gehiago apirilean? Ostaluetan horditzen dira indiano zaharrak, eta aisa erazten dira gauetan nesken alkondarak. JSren poema irakurtzen ari zitzaidan Lankratx adiskidea isildu egin da ardo botila hartzeko. Hondarra basoetara, xurru eta klik! Ardo pilota hauxe! Poemaren azken lerro horiek guretzat ziren. Bistan da. Aulkietatik altxa, eta ziraldoka! Poetak prestatu digun akabailaren erdia bete genuela ohartu gara. Hi, eta bigarren erdia? Eta Ziburutik Sarara abiatu gara, ahal genuen bezala, sasi-xokoetan begiratzera. Poetaren apaingarri txoro bat bertzerik ez da izaneren, baina guri ardoaren beltzak berak ere ez digu ilunduko poema horrela betetzeko esperantza.

IKASTAROAK

Saloiko dantzak, dantza folklorikoak, eskulanak, masaiak, joga, argazkigintza, marrazketa eta pintura, jostura, kosmetika naturala, keramika eta autodefentsa ikastaroak antolatuta ditu Iruñeko Alde Zaharreko Auzo Elkartek. Apuntatu nahi duenak Elkarteko egoitzara joan (Aldapa, 5) edo 21 25 26 telefonora dei dezake.

Nazioarteko sukaldaritza, postre naturalak, ingelera, antzerki teknikak, autoestima, autodefentsa eta abiltasun sozialak emakumeentzako ikastaroak antolatzen ditu datozen hilabetetarako Andrea zerbitzuak. Batzuk goizez eta beste batzuk arratsaldez, ordutegi zabalak daude. Apuntatzeko Andreara joan (Navarrerria 15) edo 22 77 14 telefonora deitu.

MUSIKA

'Def Con Dos' eta 'La polla records' musika taldeen kontzertua izanen da igande honetan, apirilak 30, Lakuntzako Matraka dantzalekuan. Bertan, 'Alzheimer' izeneko diska aurkeztuko du 'Def Con Dos' taldeak. Gaueko 9.00etatik aurrera, sarrerak 1.500 pezetan salduko dituzte.

'Los Suaves' musika taldeak kontzertua eskainiko du bihar larunbata, apirilak 29, Garesen. Gaueko 11.00etan hasita, herriko dantzalekuan izanen da. Sarrerak 1.500 pezetan salduko dituzte.

'Imuntzo eta Beloki' abeslari kantaldua eskainiko dute bihar larunbata, apirilak 29, Garendiain herriko Aitona jate-txean. Hauekin batera Ultzamako 'Soinuzale' akordeo taldeko kideak ariko dira, gaueko 11.30etatik aurrera hasiko den emanaldian.

BESTELAKOAK

Sebastian Lizaso, Andoni Egaña eta Millan Telleria bertsolarien saioa izanen da igande honetan, hilak 30, Leitzako plazan. Migeltxo Saralegi harrija-sotzaileari egindako omenaldian barruan, lehenengo emanaldia eguerdian izanen da eta bigarrena bazkal ostean.

Zinema Mexikarrari buruzko zikloaren barruan 'Actas de Marusia' izenburuko pelikula eskainiko dute heldu den asteartean, maiatzak 2, Iruñeko Olite Zineman. Nafar Ateneoak antolatuta, arratsaldeko 8.00etatik aurrera. Sarrerak 350 pezetan salduko dituzte.


NAFAR KRONIKA

JON ALONSO

Aniztasuna

Bedatsaroan gaude-nez, kukuak jo du. Israelen. Jakinik kantua honeraino iritsiko zela: «Juduek tolerantzia oinarrituriko elkarbizitza arautu zuten eta haien ekarpenak Nafarroako kultur aniztasunaren adierazle bihurtu dira. Eta, Erdi Aroaz geroztik, aniztasun hori da gure nortasunaren ezaugarri garbiena». Hasiako hitzak kortesiazkoak dira, noski. Bigarren partekoak ez, ordea: horiek mezuaz leporaino zamaturikoak ditugu. Eskuina berri-tzailearen bandera. Eskuin ukatzaile, morroi eta genozidarekin —baina kontuz, morroiaren morroiaz eta zabarraren zabarrak genozida— ohiturik, kantu berriak ez du aditze txarrak. Ezer ez izatetik zerbait izatera igaro bide gara. Esan liteke zerbait egin dugula aurrera.

Kukuak jo du eta poltsikoan xintimorik ere ez nuela harrapatu nau. Aniztasuna oso polita da, baina hitzak kualitate bat adierazten du, ez ezer sustantiborik. Eta nortasunaren platera gertatu behar denean, sustantiboa da beharrezkoa: haragia edo arraina —barka barazkijaleak, lizentzia literarioa da eta—, horra hor aukera. Haatik, aniztasunak salmenta ona eduki dezake puska batean; adibidez, Armaniri saltzen ahalko ziz-



tzaion ideia, eta marka, moda-produktu lerro berri bat —unisex, of course— egin dezan: prakak, alkondarak, jertseak, kolonia, betaurrekoak, fularrak... Baina, luzaroan, ezinbestez, nortasuna bere sustantibitatearen baitara biltzen da, puska txikiagotan ez zatitzeko, batez ere.

Aurrez-aurreko jarrean ondorioz sortzen diren tirabira zitalei aniztasuna deitza tximua igandeko soine-

koarekin jaztea litzateke. Ez dela horrela? Ni konforme. Baina, adibidez, aniztasunaren kapa zabalak kabitzen ditu bi deialdi diferente eta bi toki diferentetan manifestatuko diren Nafarroako langileak? Kabitzen, halaber, norabide guztiz kontrajarrietan zuzenduriko bi unibertsitate-proiektu? 'Estudiantes y obreros unidos venceremos', zioen esloganak. Esaten ez zuena zen non eta norekin.

ASTEKO PERTSONAIK



Ruben Beloki
Pilotaria



Juan Garcia Blasco
NUPeko Errektorea

A skorentzat ezustea eta beste batzuentzat espero zitekeena gertatu zen joan den larunbatean Gasteizko Ogeta pilotalekuan, Belokik Arretxeri 22-12 irabazi zionean. Eta ez da bakarrik emaitza harriztekoa izan daitekeena, partidua bera izan zen sekulakoa, Belokik egin zuena, noski. Indartsua dela erakutsi zuen Burlatako gazteak, eta gogo izugarriak dituela txapela eskuratzeko. Ez du, jadanik, amets bat bezala ikusten txapeldun izatea, iazko txapelduna arazo handirik gabe gainditi baitzuen. Arretxe, berriz, ezinean aritu zen hogeituro urteko mutila nola menperatu jakin gabe. Gaztetasuna bere lekua aldarrikatzen hasi da pilota munduan, ez bakarrik eskuko pilotan, eta hori ona da, erreleboaren garaian gaudelako.

Hiru urte baino gehiago eman ditu Juan Garcia Blasco zaragozarrak Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) errektore karguan, eta orain agurraren garaia heldu zaiola aitortu du. Estatutuen afera erabakitze deitutako Klaustroan argitu zuen Garcia Blascok guztien ahotan zebilen zurrumurrua, hots, errektore berria izendatzeko hauteskundera ez zela aurkeztuko, NUP utzi eta Zaragozara alde egingo duelako. Erabakia ez dela oraindik behinbetikoa azaldu zuen, baina litekeena da errektore berria izendatu eta gero berak alde egitea. Orain arte egindako lanaz pozik agertu zen, hiru urte hauetan Unibertsitateak jasan duen aldaketa azpimarratuz. Udazkena arte ez dugu jakingo zeinek beteko duen Garcia Blascoren hutsunea.

AHAZTU GABE!



KULTUR EKITALDIK



Baigorriko Kultur Astea ospatuko da asteburu honetatik eta maiatzaren 20a bitarte. Nafarroaren Eguna jaiaren inguruan antolatuta, bihar, apirilak 29, Rock Gaua izanen da Baigorri bertan, 'Pottoka' eta 'Patagonia' taldeekin. Oronos aparkalekuan izanen da, gaueko 10.00etatik aurrera. Igandean, berriz, Nafarroaren Eguna ospatuko da, ekitaldi ugarien artean, eta maiatzaren 3an Haurren Eguna ospatuko da Bidarrain. Maiatzaren 5ean, Alduden, eztabaida bat izanen da komunikabideei buruzkoa eta hurrengo egunean, Gernika eta Arrolako haur dantzariak emanik, bertsu, kantu eta dantza izanen dira, arratsaldeko hiruetatik aurrera, Irulegiko plazan. Gaueko 9.00etan, berriz, dantzaldia Ortzaizeko elizan Iguzki Lore eta Gernikako Allende Sarazar Abesbatzen eskutik. Ondoren dantzaldia Sustrai taldearekin. Maiatzaren 7an antzerki emanaldia izanen da Baigorri, eta hurrengo egunean, 8an, Pastoral taularatuko dute Ortzaizeko Ikastola berriaren irekierara ospatzeko. Goizeko 11.00etan izanen da.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Iruñea

Txantreako jaien hasiera

IRUÑEA

Txantreako jaien hasiera iragartzeko suziria gaur arratsaldeko 8etan jaurtiko dute Felix enparantzatik, goxokien banaketa eta guzti. Txantrea Irratiak zuzenean emanen duen ekitaldi honekin hasiko dira astelehenera arte iraungo duten ospakizunak, urteko goiztiarrenak.

Ez dira lau egun hauetan soilik izaten ekintzak, Jai Batzordeak prestaturik aste honetan zehar aste kulturala izan baita, kontzertuak, lehiaketak, mahainguruak, pelikulak eta erakusketak barne. Gaur, hain zuzen ere, sortu berri den Euskara Taldeak antolatuta, bertso saioa izanen da auzoko igeritokietan arratseko bederatzietatik aurrera, Oskar Estanga eta Nerea Bruno bertan direla.

Zerbait azpimarratzekotan aurten Udalaren dirulaguntzarik ez dutela izan nabarmendu behar da. 1994ko jaietako aurrekontua 2.800.000 pezetakoa izan zen, eta, udal arauaren arabera, gehienez 400.000 pezetakoa izan behar zuen dirulaguntzak. Arras kendu dio Udalak jai batzordeari subentzioa, bi arrazoirengatik: egitarauaren liburuxkaren azala euskara hutsez izateagatik, eta pertsonaia eta erakunde publiko zenbaiti «behar bezalako errespetua ez izateagatik».

Horrek ez du inondik inora traba izan egitarau erakargarria egiteko, baina bai, akaso, neke-



Udalaren dirulaguntzarik gabe ospatuko dira jaiak.

zagoa egingo zitzaizen lana Jai Batzordeko. Gaur, esate baterako, suziria baino franko lehena hasiko dira ikustekoak, 5etatik aurrera, Irubide parkean, kometen topaketa antolatu baita. Sariak izanen dira. Ordubete geroago, Felix enparantzan, haurrentzako jolasak izango dira San Cristobal gazte taldearekin, eta 18.30etan, Piramide plazan, Nagore Joteroekin kantaldia dago iragarrita. Suziria jaurti eta gero, Maiatzaren Lehena parkea inauguratzera abiatuko da kalejira, eta 21.00etan, Basandrea taldeak antolatuta, auzoan zehar herri potea aterako da Felix enparantzatik. Ordu berean txistu eta gaita dantzaldia izanen da aipatu enparantzan. 10etan zezensuzkoa aterako da Auzotegitik, eta ordu erdi geroago, dantzaldia izanen da Korella etorbidean, Elurte taldearen eskutik. Dantzaldia bukatu orduko kuleroketa antisexista izanen da, Gazte Asanbladak antolatuta. Goizeko lauretan maiatza paratuko da.

Bihar, goizeko 9etan hasiko dira dianak, eta ordu erdi geroago haurren 1. arrantza txapelketa antolatu da Magdalena zubiko makaldiaren ondoan. 11etan burhandiak abiatuko dira peñetatik, eta arratsaldeko 7.30etan, Euskalerrria plazan, Iruña Dantza taldearen eskutik emanaldia izanen da. 10etan, AABek herri aforia antolatu dute Auzotegin.

Txakur mestizoen erakusketa Eroskin

IRUÑEA

Txakur mestizoen I. Lehiaketa antolatu du heldu den iganderako, maiatzak 7, Nafarroako Animalia eta Landareen Babeserako Elkartek, Eroski hipermerkatuko aparkalekuan. Hau da gurean antolatu den mota honetako lehen lehiaketa, eta goizeko hamarretatik aurrera izango da.

Ezagunak dira arras txakurren arraza ezberdinen ezaugarriak goresteko hantzen antolatzen diren lehiaketak, baina horietan ez dute inoiz kapidarik izan txakurren artean gehiengo direnak: % 80 mestizoak dira, arraza zehazgabeak, alegia. Animalien artean adibide berezia da oso txakurren, gutxitan nahastu baitira hainbestetan eta hainbesteren artean arraza bereko animaliak. Pisua kilo batetik 80ra bitartekoa izan daiteke, eta formak eta koloreak, nahi adina. Inor gutxik egin du inoiz euren alde, jabeak izan ezik, baina, hala ere, gogorrenak eta garatuena direla esan daiteke, soilik beraiek izan direlako gauza baldintza gogorrenetan irauteko. Orain, Animalien Babeserako Elkartek «inoiz ez egingako errekonozimendua egiteko» erakusketa hau antolatu du.

Faltzes

Pedro Iturralde jazzlariaren omenaldia gaur hasiko da

A.B. / IRUÑEA

Pedro Iturralde jazz musikari famatuari herriak prestatu dion omenaldiak gaur izango du lehen ekitaldia, arratsaldeko zortzietan Kultur Etxean zabalduko den argazki erakusketarekin. Bertan ikusi ahal izango dira faltzestarraren bizitzako unerik garrantzitsuenak biltzen dituzten irudi-lekukoak, eta Iturraldek emandako argazkiekin zein herrian bertan zeuden idazkiekin osatu da. Ekitaldi berean Faltzesko Gaiteroak taldeak 'Paseos por el Do' kaleratu duten diskoaren aurkezpena egingo da.

Lau egunetan zehar ospatuko da Faltzesek bere musikari unibertsalari eskaini nahi dion omenaldi hau, ekitaldi franko antolatu baititu Udaleko Kultura Zerbitzuak. Gogoratu behar da

egun hauetan Gaztediaren Jaiak ospatzen direla herrian, eta ospakizunak, beraz, jai giroan egingo dira. Bihar, larunbata, kontzertua izango da eliza nagusian, arratsaldeko zazpi t'erdietatik aurrera, eta bertan izango da Madrilen musikariari egin zitzaion omenaldian parte hartu zuen laukotea, Pedro Iturralderi Omenaldia izenekoa. Madrilgo bere ikasleek osatua. Ekitaldi berean Faltzesko abesbatzak parte hartuko du, eta Pedro Iturraldek berak hainbat abesti joko ditu. Igandean ere musika izango da protagonista, Pablo Sarasate Orkestrak kontzertua eskainiko du musikariarekin batera. Kontzertua arratsaldeko zortzietan izango da elizan, eta zuzendaria Javier Iturralde musikariaren anaia izango da.

Egun nagusia, halabaina, as-

telehena izango da, herriko talde kultural gehienek omenaldia eskainiko diotelako herrikideari. Ordu batean seme kutun izendatuko du Udalak, eta Urrezko Liburuan sinatuko du Iturraldek. Hortik segizioa aterako da herriak dedikatutako kalearen oroigarria inauguratzera, beti ere fanfarre, gaitero eta dantzariak lagundurik. Arratsaldeko bost t'erdietatik aurrera kontzertua izango da bere omenez frontoian, herriko musika talde guztien partaidetzarekin. Arrazoak izan dituzte antolatzaileek talde guztiei txoko bat egiteko, baina azkenean denak egongo dira: Nueva Etapa taldea —Amanecer taldearen ordekoak—, Faltzesko joteroak, bertako jazz laukotea, Pedro Iturralderen irakasleek osatutako taldea gaiteroek, eta bolero-kantariak.

Bera

Lore-jokoaren mendeurrena ospatzeko literatur lehiaketa

BERA

Antoine D'Abbadiek Beran lore-jokoak antolatu zituela ehun urte betetzen dira aurten eta, hori dela eta, Berako Euskara Batzordeak, Bortzirietako Euskara Batzordearekin batera, egitarau berezia antolatu du Lore-jokoak 95 programazioaren barruan eta, beti ere, 1895eko lore-jokoaren ildoari eutsiz.

Ekainaren 17 eta 18rako antolatutako egitarauaren oinarri, hain zuzen ere, literatur lehiaketa izango da. Ekainaren 18an jakinaraziko dute lehiaketa honetako epaimahaikideek irabazleen izena baina parte hartu nahi duten guztientzako deialdia jada zabaldu dute. Hamasei urtetik gora izan beharko dute partehartzaileek eta euskaraz egin beharko dute idazlana. Lehiaketak, halaber, bi modalitate izango ditu, narratiba alde batetik, eta olerkia

bestetik. Egile bakoitzak, gehienez, lan bat aurkeztu ahal izango du bakoitzean. Gaia, berriz, '...eta ehun urte igaro dira' izanen da baina ez du, derrigorrez, lore-jokoaren mendeurrenarekin zerikusirik izan beharrik.

Idazlanen luzerari dagokionez, narratibaren arloan, gutxienez bost orri eta gehienez hamar idatzi ahal izango dituzte eta olerkiaren arloan, berriz, gutxienez hogeit hamar bertso eta gehienez berrogeita hamar. Idazlanak hirukoizturik eta ezizen batekin aurkeztuko dira kartazal batean sartuta, maiatzaren 19ko arratsaldeko hirurak baino lehen. Beste kartazal batean, egilearen izen-abizenak, helbidea eta NANen kopia aurkeztu beharko dute partehartzaileek.

Narratiba eta olerkian ere, 150.000 pezeta eta makila jasoko ditu irabazleak eta 75.000 pezeta bigarren sailkatuak.



Pierre Uclaren omenezko Hilarriei buruzko VI. Nazioarteko Biltzarra ez dute kasualitatez Iruñean egin. Izan ere, Nafarroan, orain arte, 1.216 hilarri daude sailkatuta eta gehiago ere agertzen ari dira. Iparraldean ere hilarri ugari dago eta garai batean bertan baino ez zeu-

dela uste izan zuten ikertzaileek. Egun, Europa osokoak ikertzen dituzte, hilarrien historia eta garapena ezagutzeko asmoz. Nafarroako Museoa aste osoan zehar egin eta gaur bukatzen den biltzarra, hilarriak ikertzen dituen arkeologo familia handia bildu egin du berriro ere.

Sinesmenaren harriak

Hilarriei buruzko nazioarteko biltzarra Nafarroan bildu ditu Europa osoko ikertzaileak

EDURNE ELIZONDO / IRUÑEA

Gaur amaitzen den Hilarriei buruzko VI. Nazioarteko Biltzarren lekuko izan da aste osoan zehar Nafarroako Museoa. Bertan, Europako hainbat herrialdeko ikertzaile eta zaleak bildu dira hilarriei buruzko ikerketan aurrerapausoa emateko asmoz.

1979. urtean egin zen lehen biltzarra eta, orduz geroztik, hilarrien ikerketan dauden arazo eta zailtasunei aurre egitea da biltzarkide guztien asmoa. Izan ere, batasun falta nabari da oraindik hilarriak aztertzen dituzten ikertzaileen artean. Beste alde batetik, ordea, arkeologia, dokumentazioa edo etnografia bezalako diziplinen ikuspuntutik hasi dira hilarriak ikertzen, azterketa ahalik eta sakon eta osoena lortzearen.

Hilarriei buruzko VI. Nazioarteko Biltzar honetan, erran bezala, Europako hainbat eta hainbat herrialdeko biltzarkideek hartu dute parte, txostenak eta azken informazioak aurkeztu eta guztien artean eztabaidatzeko aukera izanik. Biltzarkide horien artean, hain zuzen ere, Nafarroako Museoko kontserbatzaile eta arkeologi teknikaria den Ines Tabar egon da. Hilarrien esanahia eta jatorriari buruz mintzatu da Ines Tabar egunkari honekin.

Hilarrien jatorriari dagokionez, Historiaurrean ere egon bazirela aipatzen du Ines Tabarek, «nahiz eta kontzeptu ezberdina izan». Hilarriei buruzko Nazioarteko Biltzarrean aztertu duten hilarria, ordea, disko formako hilarria da, eta hau Erdi Aroan agertzen da, X. edo XI. mende inguruan. Bere esanahia edo funtzio bakarra, berriz, hilotzi bat seinatzea edo hildako baten oroigarri izatea zen. «Garai hartan artean idazkera ez zegoen oso hedatua, eta horregatik hilarriak apaindu egiten zituzten, beti ere hildakoari —modu batean edo bestean— erreferentzia eginez».

Hilarriak, hala ere, beste gauzetarako ere erabili izan dira. Hori dela-eta, hain zuzen ere, gaur egungo ikertzaileek arazo asko dituzte hilarrien jatorria eta data zehatza finkatzeko. Hilarriak, adibidez, jatorrizko lekutik atera,



Ines Tabar da hilarrien biltzarreko antolatzaile nagusia.

XABI VENTURA

eta bidegurutzeak, mugak edota beste edozein leku markatzeko erabiltzen zituzten.

Ondorioz, gaur egun, testuingurutik kanpo agertzen dira hilarriak eta oso zaila da euren aurreko historia eta garapena zein izan den zehatz mehatz jakitea. Ines Tabar ikertzaileak arazo hau aipatzen du, baita Nafarroako Museoko biltzarran parte hartzen duten beste hainbat kidek ere.

PIERRE UCL AITZINDARI Joan Menchon i Bes kataluniarrak, biltzarreko batzorde eragileko kideak, zabaldu zuen joan den asteartean Iruñean Hilarriei buruzko VI. Nazioarteko Biltzarra. Berak ere, Ines Tabarek bezala, hilarriak jatorrizko lekutik at aurkitzea aipatzen du egun ikertzeko dagoen arazo garrantzitsutzat. Ondorioz, oso zaila da Joan Menchon ustez hilarriak zehazki zein garaitakoak diren finkatzea. Hala ere, gaur egun, nahiz eta data zehatzik ezin aipatu, asko hurbiltzea lortu dute ikertzaileek. Hilarri diskoidalak nondik datozen eta zer bilakaera jasan duten zehaz-



Giza irudiak

● Goñiko hilarri honek Goñiko Teodosioren kondaira agertzen du buruan. Kondairak dioenez, Teodosiok gurasoak hil zituen emaztea eta haren amoranteekin ziren ustetan, eta, ondorioz, kateatuta mendian zebilela, deabruarekin egin zuen topo. San Miguel agertu zitzaion aurrean eta askatu egin zuen.

tea ere, zaila da Menchon i Besen arabera.

Ikertzaileen artean irizpide batasuna lortzea da biltzarkide guztien helburua eta, horretarako, hain zuzen ere, burutu dituzte orain arteko biltzarra. «Irizpideak batu eta hilarriari buruzko ikerketa sakon eta osoa bultzatzea funtsezkoa da», aipatzen du kataluniarrak; Jose Ramon Lopez de los Mozos kidea ere iritzi berekoa da.

Erabateko batasuna oraindik lortu ez bada ere, aurrerapauso garrantzitsua eman zuen bere garaian Pierre Uclak hilarriei buruzko hiztegi eleaniztuna argitaratu zuenean. Biltzarkide guztien ustez garrantzi izugarria du Pierre Uclaren hiztegiak eta Iruñeko biltzar hau, hain zuzen ere, bere omenez antolatu dute, iaz zendu baitzen Parisen auto istripuan.

Joan Menchon i Besen ustez hura izan da hilarrien ikerketaren aita eta guztien erreferentzia. Jose Antonio Beleza Moreira portugaldarra ere iritzi berekoa da. Portugalen 1.402 hilarri daude eta horien azterketan asko aurreratu da.



Lantresnak

● Santakarakoa da hilari hau eta, beste hilari askotan bezala, hildakoaren lantresnak agertzen dira. Bestalde, mugimenduaren ideia giza hankez osatutako svastikaren bitartez adierazi zuen egileak. Lantresnei dagokienez, beraz, eskoadra eta konpasa eta bi mailu ageri dira, eraikitzailea izan baitzen, ziurrenik, hildakoa.



Arotzarenak

● Hilari honen jatorria ezezaguna bada ere, hildakoa arotza izan zela erran daiteke agertzen diren lantresnei erreparatuz gero. Beso zuzeneko gurutze bat ageri da hilariaren buruaren erdian, eta ondoan aipatu hildakoaren lantresnak: ferra, orrikak eta iltzeak. Aurreko hilari bezala, eta oro har hilari guztietan bezala, alde batean hildakoaren ogibidea islatzen bada, bestean bizitza izpirituala agertzen da, batez ere gurutze baten bidez.



Ertz apainduak

● Ertza apainduta duen Salinaseko hilari honen ere, ba tik bat gurutzeak ageri ditu, buruan nahiz ertzean. Hilariaren aurrealdean, hain zuzen ere, sei puntako gurutzea ageri da, eta erdian, biribil batean sartutako beste gurutze bat. Ertzean, berriz, biribilak, gurutzeak eta marrak nahasi egiten dira.

Mirako Martinena

● Hilari hau Irantzukoa da eta oso aberatsa. Bai hilariaren burua bai ertza apainduta daude. Ertzean, hain zuzen ere, karaktere gotikoz idatzitako inskripzioa ageri da eta horrela dio: 'HIC-IA-CE-TM-AR-TI-NUS-DE-MI-RA, Mirako Martin dago hemen'. Burualdean, zortzi puntako gurutzea ageri da.



Oinatzak

● Giza irudiez eta lantresnez gain, oinatzak ere maiz agertzen ziren hilarietan. Lizarrako honetan, oinatzaren alboan, barruan gurutzeak dituzten hainbat biribil agertzen dira. Ikertzaileek teoria bi garatu dituzte hilari mota honen inguruan. Batzuen ustez zapatarien hilariak dira eta beste batzuen ustez, ordea, erromesenak. Biribil kopuruak erromeria kopurua isladatuko luke.



Napar baten bila

Galdera: Elias Beorburu de Berriobehiti. Galdera luze xamarra da. Eta ez du zerikusirik ez sexuarekin, ez osasunarekin.

Erantzuna: Lasai-lasai. Galdetu nahi duzuna. Lasai askoan, guk nahi duguna erantzungo dizugu eta.

Galdera: Mila esker. Ba ni Ines Woodie naiz. 1974 urteko maiatzan Londonen nengoan, WALTERTON ROAD 101. zenbakian, badakizu squatters-en erresuman. Squatters horretan sortu zen The 101'ers rock taldea, geroxeagoko The Clash taldea. Han britaniar gutxi ziren. Txiletar bat, napar bat, Rocco, bi neska Malaga-koak, Paloma eta Esperanza, eta Richard Dudanski. Dударik gabe horixe zen Londoneko squat-ik politenetarikoa. Bazuen soto bat, koltxoiez estali genuena, rock musika soinatzeko. Txarrenak ziren hasi berriak, eta garai hartan denak ginen atzotik rock soinatzten hasiak. Hobetu orduko, joanak ziren. Sinetsita geunden hola Iraultza egiten zela.

Noiz behinka Andaluziatik baten bat etortzen zen. Gauza jakina zen gure squatean bizi ahal izateko Jumilla, Fino eta Torres zirela gonbidapen onenak. Oso karioa zen alkohola Londonen. Sekulako party egiten ziren halakoetan. Niri nere herriko bizkerfestak gogorazten zizkidan. Garai hartan hasi ginen reggae aditzen, jamaikar anitz baitziren han. Rolling, Pink Floyd eta, kalalaba ziren guretako. 101'ers taldea instant batean egin zen, amen Jesus batean. Mila aldiz harrapatu gaitu poliziak 101'ers kartelak hormetan paratzen. Halakoetan beti izen faltsua ematen genien. Ni eskuarki Pottokea nintzen. Herrimina, badakizu. Ba afera da, bazela napar bat, goitin erran dudana gisa, squat berriak irekitzen oso listua zena. Koltxo batean kokoriko jarri, bertso bat kantatuz, Indioek espiritu txarrak uxatzeko erabiltzen dutenaren gisakoa, eta gauza zen argi-elektikoaren indarra edozein transformadorerik ateratzeko.

Gau hartan Andaluziatik, egitan, borts kiloko pipa boltsa bat ekarri ziguten. Roundhousen egonik, garai hartako musika berriaren azokan, Van Der Graff Generatorren teloneroak ginen. Pipak jaten ari



Squatt hartan bazen napar bat, squatt berriak irekitzen oso listoa zena. Gauza zen argi-elektikoaren indarra edozein transformadorerik ateratzeko.



'Caines Navarros' liburuko ilustrazio bat.

Inork ezagutzen baldin badu napar bat, The Clashen squatean ibilia zena, jakinarazi Londongo adiskideak bere bila dituela.

ginen. Hor ziren Sex Pistolsak, ja ere erraten ausartzen ez zirenak, ixuturik, pipak jateko moduz harriturik. Bada, gau hartan galdu nuen naparraren arrastoa. Joe Strummerrek 091 taldearen hondar diskoan eskua sartu behar duela medioz, etorri gara honantza, eta jakin nahi nuke ea den posible napar horren pistarik nonbait harrapatzea. Gainera napar horrek idatzi zuen 'London Calling' kanta. Guk, hori oinarri hartuta egokitu genuen. Hona hemen jatorrizko bertsoia.

London calling to the napars towns

Now that war is declared

London calling to the napar underworld

beatlemania kakazu hark hautsa jan du horrezkero

London ari da itotzen, eta ni Erripapean bizi naiz

After all this, won't you give me a smile?

Klasiko bitxi arront klasiko

Joxemiel Bidador

Sukaldaritza liburuez

Atzo Maria Galeta, bihar zanzantz, jan tripa bete arte, eta egin dezagun zart!



Berdin sendiko kalapita, halako besta, edo holako jai edo mezeta, ele xaharra egoki baitzait. Aitzina xuxen delarik, errituala guziz zuzenikoa hastera doaie: betiereko txantxak; betiereko berri ber-bereak berri-zatatu; betiereko smile par ez-adierazkorak, mahai ertz batetik besterat luzatzen direnak ahaire delizius hurretan; jendea ezartzeko jerarkia ertsi ta ikasia, jokaera neofitoei aisa errazten diena bestenaz. Jokuarauak ximpleak dituk motel: eskeini ez uxatu, bere platera hartzara, hartu edo eskatu mesedez, ez gera gosez gero. Batipat arnoturiko ezpain gorrixkak kabal, irriparre faltsu eta nardagarri erakuts. Alta mezetetan gira. Hala bada josta. Mezetetan gira bai ondikotz. Jan. Mezetetan gira, jan eta bete sabela, tripan esteak egin arte zart. Zart, zart, eta zart. Hamaika mila eta hamaika aldiz egin arte zart.

Amery Picaudek bazuen errana utzi gauza ber bera, hots, euskalduna tripaundi astakilo urde zikina bazela. Ez da ezohizko ere nafar errege frantxek laga atsalaskari horien debekatzeko zedula franko, bai mezetan aitzia, bai hiletetako otamen itzelei aurka, inor hil eta hamabi apez mahain inguruan sabelen betetzeko zai niholako kezka saminarik gabe izaten zirenetakoak. Orain ere berdintsu xamar bagabiltz, mendebalde osoa loditzearen zioaz kezkatu deno, betekada batek hil du bide Euskalerria.

Ez da gutxiagorako, bat baino gehiagorendako daukagun horren literatura eskasarekin, kontutan hartzen badugu sukaldaritzari buruzko liburua zaharrak ere baditugula. Esaterako, bada 58 orrialdetako liburuto bat Tolosako Eusebio Lopezen moldiztegiaren eta 1889. urtean argira elki zena, bere 4.ko neurrian propioa den portada ipotxan izenburu berezia erakusgai honelaxe diguna: *Cocinan icasteco liburua chit bearra famili gucietan lendabizicoa euseras*. Niholako sarrerarik gabe eta inondik inorako kokagarririk aurkezteke, gaztelako *eltze modua* izeneko rezeta gogor gordin garrantzizkoaz taigabe oska ekiten dio autoreak gaiari. Aunitz errejeta aurreko mendeko Argiñanok ekartzen dizkigunak, 67 hain zuzen ere. Haragiak nagusitzen dira, baina badira bestelakoak ere. Errezeta gehien gehienak bitxiak suerta, beraz, deituriko euskal sukaldaritza berria, benetan berria bada, ezen azalgaitza benetan oso hagi zekigu ehun urte eskax gertatu

aldatze ikaragarria. Hor badira *tipula errellenatuac* edo *patatazco cocretac* edo *almendrazco gazta* edo *arrautz errealak*. Baditu euskararen gainean ere erakapenak: *erraspill* pepitoria omen da, *postrea mai-azquen*, eta ezetz igarri zeren *arrozezco mamia?*

Hona hemen etsenplu gisa errejeta ximple eta xume bi: *'Tipula errellenatuac': tipula ónac egosi, eta quentzen zaizte erdico tripac, osoric gueratzen diran moduan, eta, beste gañeracoetan becela, betetzen dira aragui chiquituz etc, eta onela betetako tipulac iriñez estali, pregitu eta egosten dira saldan. 'Ollo fricase': olloa puscatan ebaqui eta ipintzen da oliotan edo mantecan eta perregillean, ongui bustitzen, eta ondo beratua dagoenean, pregitzen dira salsa artan, bertan dozana bat almendra eta olloaren guibela, eta au pregitutacocan, machacatzen da biciro motralluan piper auts pissca batequin, botatzen zayo limoi baten zumua coipe artan dagoen olloari, eta gañera eltzezco salda, gucia egosi de diñ'.*

Halabainan, hauxe ez da lehengo errejeta bilduma, eta justu mende laurden bat lehentxeago, 1864. urtean alegia, Baionako Zilhargin karrikan eta 12. numeroan zegoen Cluzeau liburu eta paper martxantaren baithan bazen argiratu *Euskaldun cocinera, ceinarekin nor nahic cocina ona errechki eguin baiteçake* 16. neurriko liburukia. Honetan ere idazlearen izena ez dago, baina bat baino gehiago badatezke hasierako oharrari beha ezkerero: *'Huntan anitz gauza frantxes guisa izendatuac izanen dire ez-dazkiulakotz escuaraz izenac'*. 60 horrialdetan barna 150 errejeta pasata eskeintzen zaizkigu, bat bedera goxoagoa. Hona hemen orain modan diraden *crèpen* errejeta: *'Harçaitçu hirur cullera irin, borts edo sei arroltce gorringo, hirur arroltce osoac, sucre raspatua eta fleur d'oranger. Nahas çaitçu guciac ongui eta nahas guero esniarekin boullida claro baten sustancialaino. Emaçu burra puchca bat çarthainean, choilki orotan burratceco. Urthu denian, eta pasaraci duçunian çarthainean inguru gucian, emaçu cullera bat çure pastatic, heda çaçu ongui makhurtuz sensu gucietan; itçul çaçu coloriare harrarazteco. Herrausta çaçu sucriarekin eta cerbiça bero beroa'.*


■ Iruñeko Hiria Xake Torneo itxiko 7. ihardunaldiko partida, 1994ko urtarrilaren 3an jokatu.

Leonid Yudasin, 2.625 ELOkoa (Errusia)-Jordi Magem, 2.520 ELOkoa (Katalunia).

1.c4,c6; 2.d4,d5; 3.Zf3,Zf6; 4.Zc3,a6; 5.c5,Af5; 6.Af4,bZ-d7; 7.e3,e6; 8.Ae2,Ae7; 9.0-0-0. Orain arte oreka nagusitu da. Jokaldien paralelismo nabarmena da. 10.Db3,Dc8; 11.h3,Ge8; 12.Ah2,Ad8; 13.fG-d1,h6; 14.aG-c1,Ac7; 15.Ac7,Dc7; 16.Za4,Ge7; 17.Db4. Helbururik gabeko jokaldia. Posizioari eustea beste asmorik ez dago. 17....aG-e8; 18.Zb6,e5. Jokoa irekitzeko beltzen saialdia. 19.Zd7,Zd7; 20.e5,Ze5; 21.Zd4,Ae4; 22.Dd2,Zd7; 23.b4,Zf8; 24.Ad3,Ad3; 25.Dd3,g6; 26.Zf3,Ge4; 27.a3,Zh7; 28.Zd2,Gh4; 29.Ge1,Zf6. Txu-

rien joko pasiboen aurrean, beltzen zuhertasuna dago. Zaldia lekualdatzen ibili dira, lehengo antzeko tokira iristeko.

30.Ge2,Ze4; 31.Zf3,Gh5; 32.Gb2,De7; 33.a4,Gf5; 34.Zd4,Gf6; 35.cG-c2,Gd8. Ikus koadroa. Txuriek irabazteko gogo handirik ez dute erakutsi. Beltzek bukatutzat eman dute beren eraso herabea. 36.Gb1,Gc8; 37.Db3, Ef8; 38.bG-c1, Eg7; 39.Ga1,Gd8; 40.Db2,Eg8; 41.Ga2,Gc8; 42.Ga3,h5; 43.Gb3,Eh7; 44.Dc1,Zg5; 45.b5,a-b5; 46.b5,Ze6; 47.c6,c6; 48.Zf3,Gf5; 49.Gb6,Df6; 50.Db1,Eg7; 51.Ga6. Puntua banatzea adostu zuten. Mugimendu asko izan arren, borroka gutxi. Bi jokalariek berdinketaren bila joatea zer den erakutsi zuten, partida erabat aspergarria eskainiz gainera.



Duela 17 urte barnealdearen geroari buruzko azterketa luze baten ondotik, kultur zentroaren beharra aldarrikatu zuten Amikuze eta Oztibarreko biztanleek. Geroztik zentroa bizirik dago, nahiz eta egoera gero eta larriago den barnealdean dauden antzeko zentroentzat. Biltzar nagusia egin du Haize Berri kultur zentroak joan den astean. Bere historiako bihurtunean zegoela eta, geroko norabideak aztertu dituzte.

Amikuze eta Oztibarreko kultur bihotza

LUTXI FOURCADE / IZURA


Garaziren eta Donapaleuren arteko bidean, Larzabaletik hurbil, Izurako bide hertsia aurkitu ondoren, Haize Berri kultur etxea urrundik ikusten du ibil-kariak. Eliza eta pilota plazaren ondoan, eraikuntza handi eta zabala altxatzen da. Baxenafarroako nagusien etxea izanak herriko etxea aterbetzeaz gain, duela hamar urte ateak ireki zizkion kultur zentroari. Urteko biltzar nagusia egin dute joan den astean 40 lagunek, geroari begira aldaketa handiak aipatuz. Aukera ona Nafarkariarentzat bere sortzetik egin duen bidea oroitzeko...

rriko etxeak toki egokia eskaini zuen. Bestalde, Izura sinboloa izan da betidanik bidegurutzea izan baita Santiago Bidean ibiltzen zirenentzat.

Ondarea babesteko baina gaurko egoerari egokituz, gai nagusi batzuen inguruan bildu zituzten sail ezberdinetako aktibitateak: musika, kantua, dantza, antzerkia, euskara, eragingarri naturalak, artea, ezagupen historikoa eta ekonomia. Kudeantzarri dagokionez, 16 kidek osatzen duten Administrazio Kontseilua, elkartzuz Amikuze eta Iholdi kantonamenduko bi hautetsi eta elkarte zein bazkideen ordezkariak.

GEROARI BURUZKO AZTERKETA

Hiru adar nagusien inguruan osatzen da zentroko aktibitatea, funtsezko helburuetan oinarrituz. Lehendabizikoan, zentroko arduradunek gazte eta helduen formakuntza zerbitzua bete nahi dute, izan dadila musika, arte plastikoak, dantza, istorioa, arkeologia, etnologia edo euskara mailan. Bestalde, bizirik dagoen ondarea hedatzeko helburua finkatu duela eta, zentroak maiz eskaintzen ditu antzerkiak, kantaldiak, bertso saioak, erakusketa edo kontzertuak. Azkenean, laguntza materiala eskaintzen die elkartei, materiala alokatuz, festen egitaraua eginez



Daniel Arbeletxe, elkarteko presidentea.

LUTXI FOURCADE

Arbeletxe: «Turismoa kontutan hartu behar dugu eta gureganatu»

L.F. / IZURA

Geroari buruzko zentroaren xede berriak aipatu ditu biltzar nagusiak. Daniel Arbeletxe, zentroko lehendakariak biharko tema luzaz aztertu zuen.

EGUNKARIA.— Haize Berri zentroarentzat biltzar nagusi garrantzitsua egin duzue joan den ostiralean?

DANIEL ARBELETXE.— Elkarteko 40 lagun bildu gara, hautetsi batzuekin, eta hasieran finkatu genuen filosofiarekin segitzeko asmoa berretsi dugu: nahiago dugu gauza sinpleak egin beste guzuen inplikazio ahalik haundiena eskatuz. Etsenplua emateko, lan bat abiatu dugu bospasei eskolarekin, euskal antzerkia sarrarazteko eskoletan. Zentro kultural gisa, lotura egiten dugu lanean ari den antzerkilari profesionalaren eta eskolen artean. Lan horrek ez du pretentsiorik, eskoletan antzerkia eta euskara sartzea baizik.

EGUNKARIA.— Ohiko aktibitatez gain, zer beste proiektu duzue aurtengo?

ARBELETXE.— Hedapen mailan, Marrazkiri liburuxka plazaratu dugu jadanik. Aurten bi erakusketa eskaini ditugu eta jende anitz ibili da. Bestalde, besta handi bat eginen dugu uztailearen 14an, zentro estreinatu zeneko 10. urtemuga ospatuko baitugu.

EGUNKARIA.— Euskal kultur mundua aldatzen denean, zer ondorio dira zentroarentzat?

ARBELETXE.— Bihurgune batean gara eta proiektu bat lantzen ari gara, 'Izura, bideak segitzeko, bideak bizitzeko' deitzen dena. Animazio berriaren sortzeko

gogoia dugu. Gure helburua da entseiatzea jendei erakusten nor garen eta nondik heldu garen, lanean ari izanez adituekin. Hiru publikori buruz eginen dugu desmarta. Lehenik, lan berezia egin nahi dugu haurrentzat, formazioa eskaintzeko historiaren eta ingurumenaren inguruan. Gero antzeko lana eginen dugu helduei buruz, Euskal Herrikoak, galdera baita gure ustez. Hirugarren publikoa turistena da, 'turismo kulturalaren' nozioa aztertu nahi baitugu.

EGUNKARIA.— Azken puntua eztabaidatsua izan ote da?

ARBELETXE.— Proiektu orokorra eztabaidatzen eta aztertzen ari gara gaur egun. Hala ere, egia da kasu egin behar dela hitzekin, gauzak ontsa esplikatzeko. Denek turismoa aipatzen dute kontutan hartu behar den errealitate bezala. Konpostelako bidea denetan aipatzen dute eta egun batez zerbait eginen baita, edo kontra joaten zara edo entseiatzen zara proiektua muntatzera, funtsezko zerbait emanez. Helburua da guk, lekuko jendeak atxik dezagun, ezin eta beste nonbaitetik etorritako norbaitek.

EGUNKARIA.— Kultur etxearen bide berria litzateke?

ARBELETXE.— Dudarik gabe, baina nere ustez proiektua gauzatzea beharrezkoa da Haize Berri bizirik atxiki nahi baldin badugu. Datozen asteetan proiektua landuko dugu eta uda baino lehen erabakia hartu beharko dugu, neurri bereziak jarri beharko baititugu, hautetsiek begi onez ikusi arren ez baitute iniziatiba eta dinamika izpirik ere.



Haize Berri elkartearen etxea, Izuran.

LUTXI FOURCADE

Hots, funtsezko azterketa eta pentsaketak burutzeko asmoz ekonomian, gizartean zein kultur Herrien Kontratu desmarta abiatu zen duela 17 urte barnealde zein kostaldeko kantonamenduetan. Lan hori burutu zuten ehun bat lagunek Amikuze eta Oztibarren eta garaiko egoera aztertu zuten sailka. Ondoren, Kultur eta Astiune batzordeak proiektu sozio-kulturala muntatu zuen, eta proiektu hau burutzeko asmoz Haize Berri zentro kulturala sortu zuten 1981ean bilduz 40 kultur elkarte eta profesionalen sindikatuak. Izura herria hautatu zuten zentro berria aterbetzeko bizia arrapizteko Baxenafarroako herri ttipian, eta he-

Haize Berri zentro kulturala sortu zuten ehun bat lagunek 1981ean, 40 kultur elkarte eta sindikatu profesional bilduz. Izura sinboloa zen, betidanik bidegurutzea izan baita.

edo aholkuak emanez ekitaldiak muntatzeko.

Hala ere, 400.000 liberako buxetarekin diru arazoak ditu elkarteak. Azpimarratu behar da aurrekontuaren % 90 autofinanzaketatik datorrela eta azken une honetan lanpostu erdi bat baizik ez dutela ordaintzen ahal, lana anitz izan arren aktibitateak kudeatzeko. Aterabidea ahal bezain fite aurkitzea lehentasuntzat finkatu dute arduradunek, zentroko egoera hobetzeko. Funtsezko pentsaketak abiatu dituzte eta iragandako biltzar nagusia urrats bat baizik ez da izan abiatuko den desmarta karietara.

Haize Berri batek ufa dezala Oztibarre eta Amikuze aldean...

«Jazza unibertsala da egun»

A. BARANDIARAN / IRUNEA

Faltzes bere herriaren omenaldia jasoko du Pedro Iturralde jazzlari famatuak, aurten profesional moduan jotzen hasi zela 50 urte bete direla eta. Duela urte asko bertatik atera arren, «sekula ahaztu ez» duen bere herriko talde guztiek omenduko dute, gaur hasita, lau egunetan zehar, eta herriko seme kutun izendatzeaz gain, bere izena izango duen kale bat inauguratuko da astelehenan, maiatzak 1. Joan den abenduan Madrilgo musikarien omenaldia jaso bazuen ere, sorterrian prestatu denari berebiziko garrantzia ematen dio 65 urteko saxo jole honek. «Sari hau Nafarroarekin batera jaso nahi dut, garrantzitsuen hasiera haiek izan zirelako. Orduan hasi nintzen jotzen, orduan ezagutu nuen jazza, eta orduko hezkuntza musikala oso garrantzitsua izan zait beti».

EGUNKARIA.— Zer-nola bizi dituzu omenaldiak?

PEDRO ITURRALDE.— Omenaldi asko egin dizkirate, baina hunkigarriena Faltzeskoa izango da, azken finean nire herria delako. Eta herriak maitatzea oso garrantzitsua da. Ni oso sentibera naiz, eta memoria izugarri ona daukat, ez baitut inoiz ahazten. Horregatik, ez ditut inoiz ahazten Faltzesko lehen urteak, lehen txaloak eta animoak, eta Nafarroa osoan egin nituen emanaldiak. Garai hura oso atsegina izan zitzaidan musikatik bizi nintzelako eta asko ikasi nuelako.

EGUNKARIA.— Berrogeita hamar urte inguru mundu guztian zehar musika jotzen aritu ondoren, nola jasotzen dira hainbeste laudorio?

ITURRALDE.— Nik beti lan egin dut pentsatu gabe postuak igoko nituela edo azkenean omenaldiak jasoko nituela. Musikarekin maitemindu nintzen txikitari, eta dena eman dut hobetzeko eta musikatik bizi ahal izateko. Baina, azken finean, bizitza osoan egin dudana izan da jende askok egiten duena, hau da, lana ongi, horregatik batzuetan harritzen

naiz sariekin, baina estimatzen da, eta poz eta umiltasun handiz onartzen dira.

EGUNKARIA.— Meritu handiagoa dauka jazzlaria izateak Faltzeskoa eta txuria izanda?

ITURRALDE.— Jazza, jakina denez, Estatu Batuetatik eta jende beltzarengandik dator. Hortik edan dugu denok. Baina gaur egun unibertsala da, eta bakoitzak bere arima eman ahal dio. Beethoven alemaniarra da, baina mundu guztiko

dik gaur egun batzuek uste dute orduko eta gaurko jazza gauza bera dela, eta bakan batzuek jazz deitzen dute euren ustetan 'musika serioa' ez den guztia: pasodoble, tangoa... Jazza sormen musika da, ez da dantzarako musika.

EGUNKARIA.— Jazz eskolak eta jazz joera ezberdinak daude, baina oraindik ezinbestekoa al da inprobisazioa?

ITURRALDE.— Inprobisaziorik gabe ez dago jazzik. Musikari

dela, horregatik nahiago dut deitzen bazaio 'bat-bateko sormena'.

EGUNKARIA.— Zu ezagun egin zinen jazza eta flamenkoa nahastu zenituelako, estilo berri bat sortuz. Hori izango da zure ekarpenik garrantzitsuen?

ITURRALDE.— Mundu osoan horregatik ezagutu naute, baina ez nintzen nahasketa horrekin hasi beste gauza guztiak bazter uzteko. Ekin nion nire bilakaera profesionalaren beste urrats bat bezala, eta orduan egin nuen oso garai aproposa zelako. Izan zen aldaketa bat jazzaren munduan, inprobisazioak gai ezagunei buruz egitetik gai ezezagunetara egitera igaro zelako, nolabait esateko.



Telebistako programa batean.

DIARIO DE NOTICIAS

orkestrek jotzen dute, ongi edo gaizki.

EGUNKARIA.— Hala ere, eta zuk eta beste batzuek egindako lana gora-behera, jazz oraindik ez da oso ezaguna, gutxiengo baten musika gisa hartua da eta. Berez horrelako musika da, edo oraindik ez da zabaldu zabal zitekeen heinean?

ITURRALDE.— Gutxiengo baten musika da oraindik, baina ni hasi nintzen baino askoz ere gutxiago. Orduan ezezaguna zen erabat. Orain-

guztiak egiten dute, eta, are gehiago, kantari bat ez bada gauza gai baten inguruan inprobisatzeko, solo bat egiteko, ez da jazz kantaria. Nahiz eta partiturari begiratu. Behin esan zuen kritikari batek ez nuela inprobisatzen, paperari begiratzen niolako, baina begiratzen nion akordeak ikusteko, ez zer jotzen ari nintzen ikusteko. Inprobisazioa oso gauza serioa da, eta lan asko egin behar da ongi egin ahal izateko. Arazoa da hemen 'inprobisazio' hitza gutxiesgarria

«Inprobisaziorik gabe ez dago jazzik. Oso gauza serioa da, eta lan asko egin behar da ongi egin ahal izateko. Arazoa da 'inprobisazio' hitza gutxiesgarria dela».

Flamenkoak egitura bera du, eta oso ongi egokitzen zen aldaketa horretara. Baina nire ustez ez zen flamenkoa, nahiz eta horrela deitu izan zaion: jazzaren eta arima andaluziarren arteko nahasketa zen finean.

EGUNKARIA.— Euskal gaien buruzko lanak ere egin dituzu, eta Guridiren 'Melodías Vasca' jazzaren neurrian interpretatuko zenuketela esan duzu inoiz.

ITURRALDE.— 'Maitechu mía' eta 'Iru damatxo Donostiako' bezalako lanak beti jo izan ditut, eta Guridiren lanak joko nituzke gustu handiz jazzaren neurrian, bai, baina hori munta handiko lana da, eta Javier nire anaiarekin egin nahi dut, lasai-lasai.

Pedro Iturralde

JAZZLARIA



SOSLATA

Mercedes beltza

1929an jaio zen Faltzesen Pedro Iturralde, eta aitari esker jaso zituen lehen ikasketa musikalak, bederatzirte urte zituela. Saxoa eta klarineta ikasi zuen bere kabuz, eta 15 urterekin hasi zen kontzertuak ematen, herrira Mercedes beltz batean heldu zen gizon batek herririka batean emanaldia emateko proposatu zionean. Orduan bazuen jada jazzaren berri, herrian zegoen musikari baten ganbaran entzundako disko guztiei esker. Faltzestik Madrilera, mundura. Bi aldiz jaso ditu Monakoko jazz jaialdiko saria (1972an eta 1976an) eta bi aldiz Record World saria (1974an eta 1975ean). Bera da mende honetako musikari nafar ezagunena.

NOSKI JATOR

THE PRISON: THE RETURN OF THE MONKEY-MAN.

© Zaldi EROA

